



ERROTULUAK, IRAGARKIAK, PLAKAK, TOLDOAK, MARKESINAK ETA METALEZKO ITXITURAK (HIRI-LURRETAN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAN) JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala.

Onartuta: Udalbatzak 1991/02/25ean

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1991/05/24ean

Aldaketak

1. aldaketa

Onartuta: Udalbatzak 2002/01/28an ondorengo puntuak: 3.e), 4.f)

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2002/04/11n

2. aldaketa

Onartuta: Euskarazko testuarena Udalbatzak 2002/02/25ean

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2002/07/01ean.

ERROTULUAK, IRAGARKIAK, PLAKAK, TOLDOAK, MARKESINAK ETA METALEZKO ITXITURAK (HIRI-LURRETAN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAN) JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da negozioko lokalen fatxadetan jartzen diren errotulu, iragarki, plaka, toldo, markesina eta metalezko itxituren instalazioa arautzea, publizitateko gai horiek gehiegi nabarmentzen direla-eta Bergarako kale, kantoi eta plaza publikoak babestu nahian. Horrela, hirian izaten diren eta izan behar diren erabilpen guztiak orekatu egin ahal izango dira.

2. artikulua. Ordenantza hau erabiltzeko eremua.

Ordenantza hau Bergarako hiri lurretako area eta unitate guztietan erabiliko da, eta baita lurzoru urbanizagarriaren sektore guztietan ere, industriarako kalifikatutakoetan izan ezik.

3. artikulua. Lizentzien tramitazioa eta dokumentazioa.

- a) Udal-lizentzia beharko da bai iragarki, errotulu, plaka, toldo, markesina eta metalezko itxitura berriak jartzeko, bai lehendik daudenak berritzeko edota tokiz aldatzeko ere. Elementu horrek Ordenantza honetan jasotakoa bete beharko du lizentzia jaso ahal izateko.
- b) Lizentzia eskaera eta horri dagokion proiektua Bergarako Udalean aurkeztu beharko dira. Proiektu horrek, gutxienez, agiri hauek izan beharko ditu:
 1. Errotulu, iragarki, toldo, plaka, markesina edo metalezko itxituraren krokisa, 1:10 eskalazko altxaera eta sekzioan, eta bertan idatzi nahi dena adieraziz.
 2. Errotulua, iragarkia, plaka, markesina edo metalezko itxitura jarriko den fatxadaren 1:50 eskalazko krokisa edo fotomuntaketa. Elementu horrek proposatutako lekuan azaldu beharko du.
 3. Materialak, koloreak, testu idatzia, lotzeko era, aurrekontua eta Ordenantzari nola egokitzen zaion deskribatuko duen Memoria.
- c) Ordenantza honek dioenez aparte, markesinen instalazioak beste edozein obra lizentziak duen tratamendu bera izango du.
- d) Fatxadarekin paraleloan dauden errotulu eta iragarkiek ezin izango dute merkatal solairuak etxebizitzetatik ezberdintzeko unetik gora jo.
- e) Erabiltzen diren material eta koloreak egokiak izango dira, eta bat etorriko dira hiri-inguruarekin, fatxada berarekin, eta dagokion area, unitate edo sektorearentzat onartutako Planeamendu Partzialak eremu horri eman dion izaerarekin. Hirigune Historikoan debekaturik dago gehienbat plastikozkoak diren kanpoko errotulu eta iragarki-kartelak jartzea. Plastikoa tarteka eta modu kontrolatuan jarri ahal izango da beste materialetako errotulu eta karteletan, edota area horretan onartutako materialen neurri, egitura eta kolore berdinak izateko tratamendu berezia izan badu. Latoia eta kobrea eta margotutako egitura metalikoak onartuko dira bakarrik.
- f) Fatxadarekin paraleloan dauden errotulu eta kartelak argizkoak baldin badira, artikulua honetan orain arte aipatutako baldintza guztiak betetzeaz gain, ezin izango dute trabarik sortu inguruko etxeetan bizi direnei, oinezkoei edota alde horretan dabilen trafikoari. Arrazoizko kezarik sortuko balitz –nahiz eta Udalaren baimena izan– iragarkia kentzea agindu daiteke, lizentzia hauek salbuespen hori kontuan hartuta emango dira eta. Ezin da tarteka pizten diren errotulu edo kartelik jarri, ezta argiaren fluxua alda dezakeen sistemadunik ere.
- g) Fatxadarekiko paralelo jarritako argi gabeko kartel eta errotuluei lanpara edo fokuen bitartez argi egin dakieke. Honako lekuotan jarriko dira lanpara edo fokuek:

BERGARAKO UDALA

Errotuluak, iragarkiak, plakak, toldoak, markesinak eta metalezko itxiturak (hiri-lurretan eta lurzoru urbanizagarrian) jartzea arautzen duen Udal Ordenantza

Kartelean bertan edo gaineko balkoi edo hegalkin azpian edo berdin artikulua honetako F puntuaren zehazturiko neurria gainditzen ez duten egitura arinen gainean ere.

- h) Argitzeko sistema hauek eta dagokien lizentzia inguruko etxeetan bizi direnei, oinezkoiei edo alde horretan dabilen trafikoari trabarik ez sortzeko baldintzapean daude.

4. artikulua. Plakak.

- a) Iragarri beharreko jarduerak erabilera hori baimenduta duten bulego-eraikinetan edo etxebizitzetan egon behar dira eta dagokien lizentziaren jabe izan behar dira. Hori horrela izanda, bulego-eraikinen eta etxebizitzetan atari edo negozio-lokaleko kanpoaldean jarduera iragartzeko jarritako plakek ezin izango dute establezimenduaren jardueraz edo bere merkatal izenaz gain beste testu idatzirik azaldu.
- b) Plakak ezin izango dira zuzenean eraikinen paramentu gainean grabatu edo margotu, aldiz, fabrika-obra lotu gabeko osagai mugikorrek jarri beharko dira, eraikinen oinarritzko osagaiak aldatu edo estali gabe beti ere. Ataripea (edo portxea) duten eraikinetan, ez dago horren kanpoaldean jartzerik, zeren eta Ordenantza honen ondorio guztietarako, merkatal establezimenduaren fatxada lokal edo establezimendu horren itxieraren paramentu bertikalaren kanpoko azalera baita hain zuzen.
- c) Lizentzia eskatzen denean, auzoko komunitatea ados dagoen agiria aurkeztu behar da.
- d) Plaka horiek oinezko arruntaren begi pareko altueran jarriko dira.
- e) Atarien kanpoaldean plaka bat baino gehiago jarri ahal izateko, denak material, forma eta letra mota berdinekoak izango dira, ordenan jarrita. Ez da zertan baldintza hau bete beharrik izango Ordenantza hau indarrean jarri aurretik agindu hauek betetzen ez dituen plakarik izanda.
- f) Plaketan erabiliko diren material eta koloreak egokiak izango dira, eta bat etorriko dira hiri-inguruarekin, fatxada berarekin eta dagokion area, unitate edo sektorearentzat onartutako Planeamendu Partzialak eremu horri eman dion izaerarekin.

Hirigune Historikoan debekaturik dago gehienbat plastikozkoak diren kanpoko plakak jartzea. Plastikoa tarteka eta modu kontrolatuan jarri ahal izango da beste materialetako plaketan, edota area horretan onartutako materialen neurri, egitura eta kolore berdinak izateko tratamendu berezia izan badu. Latoia eta kobrea eta margotutako egitura metalikoak onartuko dira bakarrik.

5. artikulua. Toldoak.

- a) Toldoak jartzeko baimena emango da eguzkiaren arazoari aurre egiteko premia dagoela frogatuz gero, eta kanpoa eragin gabe beste inola ere konpontzerik ez badago.
- b) Toldoek tolesgarriak izan behar dute, eta behin zabaldurik ez da inon ere 2,5 metroetatik behera geratuko (ez fleko ez zintzilik izaten dituzten beste oihal puskek ere). Ez dute izango, gainera, espaloitik perpendikularrean 2,5 metrotik beherako osagairik.
- c) Espaloi ertzeko gorako bertikaletik 30 zentimetro utzi behar dira zabalduta dagoen toldoraino, eta inoiz ere ezin izango du horrek 3 metro baino gehiagoko hegalkina izan.
- d) Ainguraketa osagaiak ez dira fatxadaren planotik 10 cm baino kanporago irtengo.
- e) Erabat debekaturik dago Kasko Historikoko kale, plaza eta kantoietan toldoak jartzea.
- f) Etxebizitzetako balkoi, terraza eta leihoetan jar litezke toldoak, baldin eta eraikin osorako eskaera egiten bada eta kokagune guztietan modelo eta kolore berdintsukoak izanik. Hegalkina, berriz, metro azpikoa izango da.

BERGARAKO UDALA

Errotuluak, iragarkiak, plakak, toldoak, markesinak eta metalezko itxiturak (hiri-lurretan eta lurzoru urbanizagarrian) jartzea arautzen duen Udal Ordenantza

6. artikulua. Markesinak.

- a) Hirigune Historikoko kale, plaza eta kantoietan izan ezik, beste edonon jarri ahal izango dira markesinak, beti ere dauden eraikinaren egitura aldatu edo ezkutatzen ez badute.
- b) Markesinen hegalkinaren zabalerak, beti ere, ukitutako espaloia baino 30 zentimetro gutxiago eta, edonola ere, 2,5 metro baino gutxiago izango ditu.
- c) Markesinan lurretik hurbilen dagoen kota 2,5 metrotik gora egongo da espaloi ertzetik.
- d) Ez dira barandekin izango, ez eta balkoi edota ezeren biltegi modura erabiliko.
- e) Eskaerarekin batera tekniko eskudunak idatzitako proiektu osoa aurkeztu beharko da.
- f) Horren loditasuna hegalkinaren egiturak behar duena izango da, ez gehiago.
- g) Markesina mentsulen bidez lotzen denean, horiek gutxienez 2 metroko tartea izango dute espaloien rasanteraino. Alderantziz ere jar litezke mentsula horiek eta baita fatxadara tiranteen bidez lotu ere markesina
- h) Erabiltzen diren material eta koloreak egokiak izango dira, eta bat etorriko dira hiri-inguruarekin, fatxada berarekin, eta dagokion area, unitate edo sektorearentzat onartutako Planeamendu Partzialak eremu horri eman dion izaerarekin.

7. artikulua. Metalezko itxiturak.

- a) Metalezko itxiturak baimendu ahal izango dira baldin eta horien osagai guztiak, erroiluaren kaxa babeslea barne, fatxadaren lerroaren barruan badaude.
- b) Itxitura horiek Hirigune Historikoan jartzekotan, kolore ilunez margotuta egon beharko dute eta itxitura itsurik gabe. Hala ere, segurtasun arrazoiengatik beheko ertza itsua izan dezakete 50 cm-ko altueraraino.

8. artikulua.

Ordenantza honek arautzen dituen elementuren batzuk gaur egun jarrita badaude baina xedapen hauek betetzen ez badituzte, ezin izango dira berri- ez osorik ezta zatika ere— ordenantza honek ezarritakoak betetzeko aldatzen ez badira.

9. artikulua.

Debekaturik dago fatxadetan zuzenean kartelak jarri edo idaztea. Horrelakoetarako daude Udalak kale eta plazetan kokatu dituen karteldegiak.

10. artikulua.

Ezin da erakustegi, dekorazio portada edo kartelik jarri etxebizitzan balkoi edo leihoetan (salmentenak, aldi baterakoak, ez badira) eta debekaturik daude halaber, toldoetako errotuluak, ispilu erreflektagarri, udal argiteriakoak ez diren beste farola dekoratzaileak, eta auzokoei traba egin diezaiekeen instalazio iragartzaileak eta eraikinen egitura aldatu edo bide publiko eta hirigunean gehiegi nabarmentzen diren instalazio guztiak.

11. artikulua.

Ordenantza hauek aurreikusten ez dituzten kasuetan, indarrean dagoen legerian eta Udal Zerbitzu Teknikoen txostenetan adierazitakoak aginduko du, eta horien arabera eman edo ukatuko dira lizentziak aurreikusi gabeko egoerak izanez gero.

12. artikulua.

Ordenantza hau Udalbatzarrean onartzen den egunean jarriko da epe mugarik gabeko indarrean.

BERGARAKO UDALA

Errotuluak, iragarkiak, plakak, toldoak, markesinak eta metalezko itxiturak (hiri-lurretan eta lurzoru urbanizagarrian) jartzea arautzen duen Udal Ordenantza